

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Urtarrilak 13, 6. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Merkealdiak, berriro ere gure artean

Urtarrila heltzen denean, gure herrietako denda gehienek beren eskaparateetan merkealdiak iragartzen dizkiguten kartelak jartzen dituzte. Tentaldi hau, aurrean izanik oso gutxi dira dendaren batetan ikustalditxoa egin gabe, sasoi hau pasatzen dutenak.

Batzuk merkealdien zai egon dira beren erosketak egiteko, beste batzuk gangaren baten bila sartuko dira dendara eta beste asko kopritxoa eroatera, bertan saltzen digutena, normalean baino merkeago bait dago.

(10. or.)



Merkealdiak denok ikusteko eran iragarri behar dira

Orain eta hemen

—Arrasateko Bariantearen lanak berriro martxan. (6. or.)

—Aurten ere ekintza kulturalak Amaya antzokian. (7. or.)

—Elkarrizketa: Juan Osinaga, Pilota Saileko zuzendaria:


“Profesionaltasuna sartzen bada, guk lana utziko dugu”. (17. or.)

Kirolak:

—Astelehenean Antoñako Paboloia publikora zabaldu zen”. (18. or.)

—“Iñigo Roldan, Espainiako ziklo-krosseko txapelduna”.

Garaipen hau Dorleta Eskola Osoaren garaipentzat har daiteke. (19. or.)

M MUGARRI 

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospilatea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
Bergara	

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile buruaren helbidea	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zetrak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
---	--------

URTARRILAK 13, OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Jarrapellejos"
Novedades (Bergara):
"Huida a medianoche"
- Guardiako farmazia: A. Ruiz
- Gizarte eta Famili Heziketarako Zentruan:
- 4- 6,30 eskulanak, polikroma
tuak eta esmalte ikastaroa.
- 7-9 margolaritza eta dibujo

URTARRILAK 14, LARUNBATA

- Zinea: Alai: "La dama y el Baga-
bundo"
Novedades (Bergara):
"Huida a medianoche"
- Guardiako farmazia: A.M. Mo-
rales (Iturriotz)
- Amaia antzokian, gaueko 10,30-
etan Juan Karlos Irizarren azken
diskaren aurkezpena, Alfredo
Cocho-ren laguntzarekin. Piano
kontzertu hau Arrasateko Uda-
laren Kultura Batzordeak anto-
laturik entzun ahal izango dugu.

URTARRILAK 15, IGANDEA

- Zinea: Alai: "La dama y el baga-
bundo"
Novedades (Bergara): "Huida a
medianoche"
Zaraia (Aretxabaleta):
— Guardiako farmazia: A.
Azkoaga.

URTARRILAK 16, ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Hombres Marca-
dos"
Novedades (Bergara): "Huida a
medianoche"
— Guardiako farmazia: Santiago
Español
— Gizarte eta Famili Heziketa-
rako Zentrua:
- 10,30-11,30, goizez, gimnasia
ikastaroa.

- 3,30-6,30 gantxilo eta punto
ikastaroa.
- 6,30-8,30 sukaldaritza

URTARRILAK 17, ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Hombres Marca-
dos"
- Guardiako farmazia: M. Corcua-
ra;
- Gizarte eta Famili Heziketarako
Zentrua:
- 4-5,30 Sofrologia (errelajazio
teknikak) ikastaroa.
- 7-9 margolaritza eta dibujo
ikastaroa.

URTARRILAK 18, ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago sesiorik
- Guardiako farmazia: J.A. Irizar,
Erguin 11
- AED Elkarteak antolaturik, "Es-
kulanak egurrean" ikastaroa
arratsaldeko 3,30etan. Bertan
Eskoriatzako Irakasle Eskolako
Beatriz Arregi izango dugu.
- Gizarte eta Famili Heziketarako
Zentrua:
- 10,30-11,30 gimnasia ikastaroa.
- 6,30-8,30 "saskigintza, tapizak"
ikastaroa

URTARRILAK 19, OSTEGUNA

- Zinea: Alai:
- Guardiako farmazia: L. Amezua;
Santa Marina 32.
- Gizarte eta Familia Hezkuntza-
rako Zentruan:
- 10,30-11,30 gimnasia
ikastaroa.
- 4-6 alfonbragintza ikastaroa.
- 6,30-8,30 sukaldaritza ikas-
taroa.
- "Eskola errendimendua: motiba-
zioa eta ikasteko ohiturak" gaia-
ren inguruan hitzaldia Karme-
le Iturbe psikologaren eskutik,
arratsaldeko 3,30etan AED
elkarteak antolaturik.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

**Erredakzio
-kontseilua:** Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karmele Zuazubizkar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso
Juanito Leibar

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatx Skaut-Taldea


Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN:

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Mahaiondoaren ondoan

Igaro dira janari-jaiak. Urta-rrileko ohizko aldapari ekiteko prest gaude; kasu gehiegitan, zoritxarrez, hilabete batez baino gehiagoz luzatuko den aldapa ikaragarria. Baina, diodan legez, Abenduaren bigarren hamabostaldiko pantagrueliar oturuntzak -Iokin Zaitegik esango zukeen bezala- amaitu ditugularik, gure gorputzean hain eseraldari luzeek utzitako arrastoa kentzeko gertatzen gara.

Eta hamabost egunetako plazerra... sufrimendu bilakatzen zaigu, kiloan eragina dela eta. Ispilu aurrean kokaturik, geure marrek irabazitako borobiltasunak beldurtzen gaitu. Ai ene! Eta orduantxe bertan zin dagiogu gure buruari, gorputzak azaltzen duen gehiegizko zama nola edo hala arintzen saiatuko garela.

Eta hasten da kalbarioa. Errukirik gabe, gorputza zigortzen dugu: asteko hiru egunetan ura eta fruta, besterik ez. Hau da, ez jatea lehen gainezka egin dugulako. Animalia irrazionaleri ez zaie hori gertatzen. Guri razionaltasunak aldaerazten omen digu ohitura.

Gimnasioak berriro betetzen dira, hilabete osoan lan gutxi izan ondoren. "Body-ak", estuegiak,

txandalez ordezkaten dira. Taulak nekez amaitzen dira. Izerdi patsetan ari garela, egun batzuk lehenagoko txanpaina eta mazapanak madarikatzen ditugu. "Ez dut intxaur saltsarik nire bizi guztian berriz ikusi nahi" errepikatzen dugu gure baitan, behin erta berriz gerriko flexioak dagitzagun bitartean.

Eta kaleak korrikalariak hartuta; era guztietakoak. Sendi osoak ikus daitezke, seme-alabak aurretik, gurasoak -adina adin- haiei ezin jarraikio. Mila koloretako lasterketa: elastiko distiratsuak, zapatila akoltxatuak, ez-inbesteko zinta mirakulutsua bekokian... Espektakulu ederra bihurtu zaigu, toki bakartietan falta bide zaien indarra ikusle artetik igarotzean berreskuratzen duten atleta lirain-bikaingai horiena.

Guzti hori, lagunok gizakiaren ahuleziarengatik datorkigu. Hain indarge ez bagina, ez genuke gure gorputza zikloki zigortu beharko. Maila berebean iraungo genuke beti eta jatorduetan irabazitako kaloriak bizimodu arrunteko gorabeheretan kenduko genituzke...

Baina, bertan, ez al duzue uste negarrezko ibar hau aspergarriago izango genukeela?

Josemari Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGURUAK

GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35
Andoni Conde. 79 60 08

EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

**GIROA
AROTZAK**

**ZABALDU BERRIA
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

**GURASA
ASEGURUAK**

Zeuzertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Haurren denbora librea

"Neskaita batek bere amari galdetzen dio:

— Ama, ingelesa ikastera joan naiteke? Nire lagunak badoaz, eta...

— Ezer erabaki aurretik — erantzun zion amak— egizu egunean zehar duzun ordutegia.

Handik ordu laurdenera neskaita bere papelaz amari doakio.

— Hemen duzu, ama. Goizeko 8etan jeiki, 9etan ikastolara 12,30ak arte. Ordubetan bazkaldu eta 2,30etan berriz ikastolara 4,30ak arte. Bostetan saski baloia egitera 6ak arte. Seietan lagunekin egoten naiz. Gero, 7etarako etxera "etxeko lanak" egitera, afaldu eta...

Orduan amak esaten dio:

— Ingelesa ikastera bazoaz, esango dizazu noiz izango duzun denbora zure lagunekin jolasteko edo egoteko?"

Geroago jakin izan dudanez, neskaita horrek ez daki ingelesa oraindik.

Gertaera hau abiapuntutzat harturik, gure seme alaben eguneroko bizitza goizetik gauerarte guztiz antolatuta dugula konturatu gara, beraiek nahi dutena egiteko denbora ia ez dutelarik.

Eskola orduetatik aparte, gehienek beste ekintza batzuk egin behar dituzte egunean zehar. Hizkuntza arrotz bat ikasten ez duenak gimnasia egingo du; informatika edo ordenagailuak erabiltzen ikastera ez doana, gorputz espresioa, dantza edo "gerrako arteak" (artes marciales) egitera joango da. Beraiek nahi dituzten jokuei, jolasei ekiteko noiz dute astirik? Eta, ez dezagun ahaz eguneroko telibistaren zatia irentsiko dutela.

Hala ere, esandakoaren aurkakoa ez dela izan behar eskola ordutik kanpo gelditzen den denbora kalean igarotzea (lehen trafiko eta arrisku gutxiago zegoenean egiten genuen bezala). Gure herriek ez dute haurrentzako jolastoki aproposik; kaleek ez dute segurtasunik eskaintzen haurrek bertan jolas dezaten. Orain, haurrek kaleetan zehar jolastan ezin ibiltzeak ez du esan nahi egingo dituzten ekintza GUZTIAK zuzenduak, erregelatuak, probetxu bat ateratzeko bezalakoak (gero "beharko" diren gauzak: ingelesa, informatika,...) izan beharko direnik. Haurrak berak aukeratutako jolasetan aritzeko denbora izan behar du, berak nahi dituen lagunekin, berak ezarritako araez, antolamenduz,...

Noski, eskolak erakusten ez dituen gauza batzuk ikastera interesgarria dela, eta baita momentu egoki batzuk badaudela ere. Baita denbora libre ondo erabiltzea ikasgai bat dela. Baina, beti bezala, ekintza horiek bizimodu ekilibratu baten barruan eman behar dira eta ekilibrio horretan benetako denbora libre ondo egon behar da, bakoitzak nahi duena egin dezan.

Jolastoki egokiak eta denbora eskatzen

badugu, egunero modu batez edo bestez, gure seme alabek eskatzen diguten beste gauza bat errebindikatu behar da ere: gurasook haurrekin jolastea, hain zuzen ere. Errekuperatu beharko genituzke jostailu eta jolasarekiko galdutako ilusioa, kondaira eta ipuinak maitatzea eta hurrengoari pasatzea, haurrek bezala ondo pasatzeko gaitasuna berreskuratzea. Eta hau, gure seme alabekin erreza dugu. Utzi ezkerro eurak erakutsiko ligukete, eta gainera edozein momentutan, beti prest bait daude. Bide batez, gure denbora librearen zati bat, behintzat, ondo erabiliko genuke.

Edurne Erauskin

Bihotz bihotzez, eskerrik asko!

Joan zen Urtarrilaren Sean Erregeen Kabalgata egin ondoren, Batzorde Interparrokialak Arrasateko herriari bere poztasuna adierazten dio, Kabalgata egiterakoan herriari ikusi zen giro zintzo, alai eta jatorragatik.

Baita ere, eskerrak ematen dizkie Kabalgata prestatzeko bere laguntza eman zuten pertsona eta erakundeei:

—Beren denbora eta ideiak Kabalgata prestatzeko eman zituzten gazte eta nagusi guztiei;

—Udaltzaingoari eta Ertzantzari, egin zuten beharrezko lan isilagatik;

—Gozokietan kolaboratzaile izan ziren Banku eta Kooperatibei.

Bereziki eman nahi dizkiegu eskerrak:

—Erregeen eta haien Gortekoan jantziak egin zituzten San Viatoriko "Guraso Eskolan" biltzen diren emakumei;

—"Serrerria Atxa" koei, batez ere Tomas Atxari, Belena montatzerakoan dohan, eman zizkiguten, material eta denboragatik;

—Pello Barriokanali, Erregeen koroak egiteagatik;

—Gorosabeli, karroza abilitade handiaz zuzentzeagatik;

—Txistulariei eta soinu-joleei;

—Abeslariari eta Belenean zeuden musika-joleei;

—Osakidetzari, Deba Garaiko Eskualde Ospitalean zeuden gaixo guztientzat opariak prestatu zituelako eta Errege Gortearrekin eskuzabal izan zelako.

Eta bukatzeko, mila esker Arrasateko Herriari Kabalgatan ikusle eta animatzaile bezala parte hartu zuelako, haurren bihotzak poztu eta alaiuz.

Batzorde Interparrokialak

Zer deritzozu tabernak ixteko ordutegiari?



Bittori Etxebarria
(Irakaslea)

Nire ustetan, tabernak astean zehar ordubatak arte eta aste buruetan hirurak arte zabalik egonez, nahiko denbora dago parranda egiteko eta kontutan izan behar dugu auzokoek ere lo egin behar dutela.




Jesus Altuna
(tabernaria)

Oso ordutegi txarra dela uste dut. Asteburua oso labur geratzen da. Arrasaten jendea gero eta beranduago irtetzen da kalera; gu, astean zehar dagoen ordutegiarekin ados gaude, baina asteburukoarekin ez. Gainera, zaratak ez dira taberna barruan gertatzen, kanpoan baizik.



Marijo Etxaide
(Irakaslea)

Ni kalean gutxi ibiltzen naizen arren, oso gaizki ikusten dut tabernak ixteko orduak jartzea. Bakoitzak libre izan behar du parranda nahi duen arte luzatzeko. Norbaitek goizeko bostak arte parrandan ibili nahi badu, ez daukate tabernak zertan itxi. Hori bai, neurriak hartu beharko lirateke auzokideak ez molestatzeko.



Juan Mari Belategi
(ikaslea)

Goiz ixten dituztela uste dut. Martxarekin zabiltzanean, kalean geratzen zara zer eginik ez duzula.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARITARAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28 - B- Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE



Haratusteak 1989 kartel lehiaketarako Udal Honetako kultuea departamentuan dituzue eskuragai deialdi hau arautzen duten OINARRIAK

Arrasateko Udalaren Kultura Departamentua


Arrasaten, 1989ko Urtarrilaren 12an

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA



ZENBAKI

AHOLKULARITZA - KONTSULTA

Gaiak: Kontabilitatea

Fiskalitatea

Lana

Zuzenbidea

Juridikoa


Finantzaketa

Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

Tfnoa: 79 88 75

79 75 99



Arrasateko Bariantearen lanak berriro martxan

Arrasateko bariantearen lanak direla eta, Gipuzkoako Diputazioa eta Altuna-Uria enpresaren artean izandako tirabirak konpondu ondoren, enpresa horrek segituko du lanekin, honela barianteari irtenbidea eman ez.

Bariantean burutzen ari diren lanek dagoeneko amaituta egon behar lukete baina arazo ezberdinak direla eta -leherketek inguruko etxe eta enpresei zekarkien arriskua, Labeko-kobaren aurkikuntza eta Aranzadikoek bertan egin dituzten lanak eta proiektuaren beraren arazo teknikoak- atzerapen ugari jasan dituzte ia paralizatuta zeudelarik.

Arazoa konpontzeko bi irtenbide proposatzen ziren, enpresarekin kontratua haustea; honek lanak nabarmenki atzeratuko lituzkeelarik eta orain hartu den erabakia. Hau dela eta aurrekontuak 149 milioitan gehituko dira, enpresak hil honen 20a baino lehen lan-plan berria aurkeztu beharko duelarik.

Gai honekin lotuta, Umezaintzak Udalaren aurrean kexu bat aurkeztu duela jakin ahal izan dugu, pasa den hilaren 28an San Josepe Auzoan leherketa baten ondorioz harriak jausi zirelako.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565

Tailer-Eskola Arrasaten

Deba Garaiko Udal-Elkar-teak tailer-eskola bat sortuko du Arrasaten. Tailer honetan INEM-eko eta Eusko Jaurlaritzako ikastaroak emango dira.


Tailerra 10 urtetarako alokatu diren GELMA lantegiko pabiloi batzuetan kokatuko dira.

Datorren hilerako igeltsaritza eta iturgintzari buruzko ikastaroak antolatuko dira, Deba Garaiko 50 bat gaztek parte hartuko dutelarik.

Eskola Politeknikoaren Bilera Orokorra

Joan den Abenduaren 15ean Eskola Politeknikoaren Bilera Orokorra egin zen, 138 lankideren parte hartzearekin. 1989ko Gestio-Plana onartu zen eta Kontseilu Eragilerako karguen erdiak aukeratu. Hautatu berrien artean Patxi Zabala idazkaria, eta Estanislao Oiarbide, Ainitze Leturia, Jose Ramon Elorza eta Jose Ramon Gisasola bokalak.

Erdiko Kalea 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

**ARRASATE
PRESS**

**Zure publizitatea egiteko
lekurik egokiena eta
merkeena**

Adimen artifizialari buruzko lan-eguna Ikerlanek antolaturik

Hil honen hamazortzian, Ikerlan kooperatibak antolaturik eta Eusko Gobernuaren Industri eta Merkataritza Sailak babesturik, adimen artifiziala eta sistema expertoak gaien inguruan lan-egun bat burutuko da, Ikerlanek Arrasaten duen egoitzan. Berau departamentu-ardurak dituzten zuzendari eta teknikariei zuzendurik egongo da. Honekin, adimen artifiziala zer den, eskaintzen dituen metodo berrien eta programazio tresnen berri eman, bere aplikazio eremuak zeintzuk diren, bere errekurtsuak zeinek erabil ditzakeen eta zer-nolako azpiegitura behar den azaldu nahi da.

Lan-egun honek, lau herrialdeetako Ingieneri Eskolen, IMI Programaren eta Industria Elektronikoen elkartearen laguntza izango du.


Aurrera doa Amaya antzokian Udalaren eskaintza kulturala

Udala eta Amayaren jabearen arteko harremanak, zineantzokiaren erosketa posiblea tratatzeko aurrera jarraitzen duten bitartean, areto honen erabilpena, saio kulturalak eskaintzeko finkatzen ari da azken hilabete hauetan.

Urte berri honen programazioa Gabriel Celayaren "El relevo" antzerki-obrarekin zabaldu zen. "Bederen 1" taldeak aurkeztutako lana arrakastatsu suertatu zen; 400 lagun baino gehiago bildu ziren lan hau ikusteko.

"Zine-klub"ekoek ere areto beren botatzen jarraitzen dute beren filmeak.

Eta larunbatean, bestalde, musikari tokatzen zaio txanda. Juan Karlos Irizar oñatiarra eta Alberto Cochoren piano-kontzertua izango dugu bertan.



Arrasateko Ikerlan zentroa

Gertaerak

Urtarrilaren 1ean, Kurtzeberri mendian sute bat izan zen. Nahiz eta hasieran sute handia eman, erraz lortu zen itzaltzea. Hilaren 2an, mendi berean beste sute bat izan zen. Egun berean, Eskoriatzako Ederlan lantegian sute bat izan zen.

Izotza zela eta, urtearen lehenengo egunetan istripu ugari izan zen. Hilaren 3an Nafarroa Etorbidean kotxe bat errekarara erori zen. Barruan zeuden lau lagunak ospitalera eramana izan ziren. Ondoren, etorbide hau trafikorako moztua izan ziren.

Urtarrilaren 6an Arlabanen, 7an Musakolan eta 8an Mietzerrekan istripuak izan zen.

Eta igandean, hilak 8, Kanpatzarren moto istripua izan zen. Motorrean zihozten lagunak anbulantzian eramana behar izan zituzten, horietako bat Gazteizera.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik
onenen aukera zabalena**

Garibai, 9 Tfnoa:798997


ARRASATE

Bergarako euskeraz liburua

Euskalkiak eta euskalkien barneko aldaera guztiak gure hizkuntzaren aberastasunetarikoa izanik, bazter ezina dugu orain dela gutxi UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak Bergarako Udalaren laguntzaz argitaratu duen liburua: "Bergarako Euskera".

Liburu honek Bergara eta bertako auzoetako euskararen maila guztietako ezaugarriak jasotzeaz gain, horretaz zenbait adibide argi ere jasotzen ditu, hala nola testu zaharrak, idatziak zein ahoz grabaturikoak.

Horretaz gain, inguru horietako botanikaz ere hitzegiten digu, beti ere bertako euskarazko izenak erabiliz eta zer esanik ez, bertan bildurik dauden eta



galtzeko arriskuan dauden hainbat kanta, esaera zahar, esakera eta berba-jolas.

Ez dago zalantzarik, beraz, euskaltzaleentzat oso liburu lagungarri izan daitekeela eta, batez ere, euskara munduan lanean ari direnentzat, bertan beraien lanetarako laguntza eta balio handiko gauzak aurki ditzateke eta.

Ikerketarako hitzarmena Fagor eta Mikroelektronikarako zentru nazionalaren artean

Fagor taldeak eta Mikroelektronikarako zentru nazionalaren artean lankidetzaz zientifiko eta teknologikorako hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmen honek, bereziki aplikazio mailakoak izango diren elkarlanean egin beharreko ikerketa proiektuak jasotzen ditu.

Akordioak, batez ere, aplikazio berezietako zirkuitu integratuen garapen eta diseinu eremuak eta sensoreekin erlazioa duten arloak bultzatuko ditu, ondorioz Fagorrek bere produktuei aplikatuko dien berrikuntza teknologikoan eragin zuzena izango duelarik.

ACUALDEK batzar berezia

Hilaren hasieran ACUALDEK, Kontsumatzaileen Elkarteak, batzar berezia izan zuen. Batzar honetan batzorde berria hautatu zen, honela osatuta gelditu delarik: Lehendakaria, Javier Cendoya; Lehendakariordea, Montserrat Lafuente; Idazkaria, Luis Ponferrada; eta Batzordekideak, Aurora Sanchez eta Bergarako ordezkari bat, oraindik erabakitzeke.

Batzorde berri honen hautaketak helburu zehatza izan du, Deba Garai osoa, Aramaio barne, ordezkatua gelditzea, hain zuzen ere.

ACUALDEK honako zerbitzu hauek eskainiko ditu: Hiri-alokairuei buruzko aholkularitza juridikoa; etxebizitza arazoak; kotxe konponketa, elektrogailuak eta hipoteka edo kredituei buruzko gaiak.

Lokal soziala Uriburu Kaleko 4ean dute eta telefono zenbakia 798777.

Kuota, 3.000 ptakoa izango da, kopuru honekin bazkide bakoitzak hilero "Ciudadano" izeneko aldizkaria jasoko duelarik.

Udalaren Oharra

Kaleetan Informatika-Ikastaro bati buruz agertu izan diren karretetan, aipatu ikastaroaz informazio gehiago lortzeko Udal-etxera jo beharra dagoela esaten dela ikusirik, Udal honek eskaintza horrekin ez duela inolako zerikusirik adierazten du eta hori argitaratu egiten da, herritar guztien ezagutzarako.



**GALLINA
BLANCA**

**BANATZAILEA
ARRASATE PENTSUAK**

Pentsu, hazi, botika, ongari eta baserrirako eta lurrerako behar diren tresna guztiak.

Deba Garaiko zerbitzurik onena !!

Zarugalde 19

Tfnoa: 796539:

ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAY, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Nire ama Santa Ines

Arrasateko parrokian datzan Ines Ruiz de Otorari buruz idaztean, elizak inoiz onartu ez zuen santutasuna eskaintzen ziola herri-fedeak esaten zuen Jose Mari Velez de Mendizabalek orriotan.

Musakolako Paula Mendizabalek horren froga ederra eman digu. Hona hemen Gellaoko ,Uritte baserrian bere amandre zen Baleriana Elkorok oheratzeko orduan esaten ziona:

“Nere ama Santa Ines,
Bart egin dot amets,
Ona bada bixendako partez,
Txarra bada bixendako aldrebes”.

Bien bitartean, aurrera segitzen dute Inesen gorpuaren inguruko ikerketek, Arantzadi taldearen eskutik. Jakin izan dugunez, hil honen amaierarako prest izango dute ikerketa horien berri emango duen txostena.

Erdu- AEK, Euskaltegikoak Arrasate Press-en



Abenduaren 20an Erdu Euskaltegiko talde bi, bosgarren eta hirugarren mailako intentsiboan dihardutenak, hain zuzen, Arrasate Press-en izan genituen, aldizkariari buruz beste zertxobait jakiteko asmoz. Galdera ugari bota zizkiguten, eta guk, ahal genuen neurrian erantzun genizkien.

Gonbidapena luzatzen diogu hemendik nahi duenari Arrasate Press bisita dezan.

*Euskal Herria omen da Europako herrialde-etatik ezkontza gutxien izaten duen lurraldea estatistiken arabera. Baina guk, behintzat, beste ezkontza baten berri izan dugu. Argazkian agertzen direnak **Alejandro Altuna eta M^{re} Jesus Velasco** gazteak dira eta beren eskontza Arantzazun ospatu zuten. Zorionak urte askotarako.*



LASO-ARREGI

izen propioak

Sabin Martiartu arrasatearra, Eskola Politeknikoko irakaslerik beterranoena. Deba Garaiko Mankomunitateak hiru urtetarako kontratua egin dio, sortu berri duen Eskola Tailerra zuzentzeko. Tarte horretan Sabinekin utzi egingo du Eskola, bere indar guztiak etorkizuna eta posibilitateak dituzten lanetan bailarako langabetuak ahalik eta hobetoen presatzen erabiliko dituelarik.

Jose Ignacio Mora, Lankide Aurrezkiko Institutio Harremanetarako aholkularia. Bere gain hartu du, aurrekoa utzi barik, “TU-Lankide” hilabete-kariaren zuzendaritza. Jose Ignaziok Iruñean ikasi zuen kazetaritza eta Madrilen argitaratzen den “Nuevo Siglo” aldizkariako kontseilari delegatua da.

Rene Waterhouse, Bergaran bizi den mutil ingelesa. Joan den Urtarrilaren 2an izandako bileran Udalaren Gobernu-Batzordeak Iturriotz kalean Akademia bat zabaltzeko baimena eman zion. Printzipioz, hiru irakasle arituko dira ingelesa irakasaten. Good luck!

Miriam Leibar irakasle arrasatearra “Ciudad de Eibar” lehiaketan, 18-25 urte bitarteko gazteentzako sailean garaile suertatu zen, “Volveran las oscuras golondrinas” ipuinarekin. Orain dela bi urte Arrasaten Bazkun-Lagunak elkarteak antolatutako ipuin lehiaketa irabazi zuen. Miriam euskal filologian lizentziatua da eta ETEO ikastetxean lanean dihardu, aurretiaz Arrasateko “La Merced” ikastetxean aritu zen lanean.

Ino Galparsoro zinegotzi berria. Simon Martinez de Arroiabek bere osasun egoera dela eta kargua utzi ondoren Inok hartuko du kargua. Berarekin Udalbatza honetan bi emakume izango dira eta Pertsonal eta Finantza eta Ekonomi batzordeetan hartuko du parte. Ino ezkondua da eta Copreci kooperatiban ari da lanean pertsonal buru-gisa.

IKER

Sukalde Erakusketa
Udala Plaza, z/g
Tfnoa: 79 00 42

ARRASATE

Bainugela Erakusketa
Zarugalde Kalea, 52
Tfnoa: 79 99 42



omu, s.l.
mosaikoak

ZERAMIKA-ERAKUSKETA

Otalora, 1 - behea
Tfnoa: 79 07 20

Merkealdiak, alboratu ezineko tentaldia

Urtarrila heldu zaigu eta Gabon Festak igaro ondoren, da-goeneko, denok gure ohizko lanetara bueltatu gara, agian poltsikoa hustu samar baina tira. Garai honetan gure herriko denda gehienek beren eskapareteetan merkealdiak iragartzen dizkiguten txartelak ezarriak dituzte eta gu, Gabonetan nahiko diru xahutu arren dendetara hurbiltzen gara ikusmiran besterik ez bada ere.


Baina merkealdiak zer dira? Ba al dago desberdintasunik saldo eta beherapenen artean? Dendariak beren produktuak merkeago saldu arren dirua irabazten dute?

Legeak zer dio?

Legeak argi eta garbi esaten digu beherapenak zer diren: Eusko Jaurlaritzaren 1986ko Ekainaren hiruko Dekretuaren arabera "Urtaroaren edo salmentaaldiaren aldakuntzaren ondorioz, salneurriak merkatuz, merkatariek egiten dituen salmentei" deitzen zaie beherapenak eta bi epe jartzen ditu merkealdiak egiteko Udara eta Negua.

Merkealdiak gehienez hila-bete batez luza daitezte eta berauek egiten hasi baino aste-bete lehenago Merkataritza Lurralde Ordezkaritzari eman beharko zaio horren berri.

Lege honek merkealdietan, hondatutako artikuluak, horretarako erositakoak edo beherapenak hasi baino hilabete lehenago dendariak ez zituen salgaiak saltzea debekatzen du.



Dendariak salneurri biak ipini behar ditu.

Merkealdiak hasteko bi egun jartzen zituen Ekainaren 21a eta Abenduaren 21a. Lehengo ezin jar zitekeen beherapenik; baina, Bizkaiko merkatariek dekretuaren artikulua hau auzitegi gorenaren aurrean salatu egin zuten, momentuz, beherapenak hasteko eguna dendari bakoitzak erabakitzen duelarik.

Honek tirabirak sortu ditu herriko eta hiriburuko dendarien artean; azken hauek merkealdiak lehenago jartzean, behartu egiten bait dituzte herrietakoak beherapenak jartzera, herrietako jendea

erosketak egitera hirietara joango den beldurrak eraginik.

Existentziak saltzeko

Herriko dendari batzukin egon gara merkealdiez hitz egiteko asmoz, eta gehienak bat zetozen merkealdietan beraiek etekinik ateratzen ez zutela adieraztean.

Aho batez esaten digute, merkealdiak sasoiko arropen irteera emateko egiten dituztela.

Pello Aramaiok herriko denda ezagun batetako nagusiak zera esan zigun: "Guk merkealdiekin ez dugu dirurik irabazten, askotan erosi ditugun baino merkeago saltzen ditugu arropak, baina beste irtenbiderik ez dugu. Arropak almagaztean geratuz gero gehiago galduko genuke, arropa hauek erosten dirua gastatu bait dugu".

Merkaldietan normalean baino bezero gehiago edukitzen duen, galdetu diogu eta jendeak zer nahi duen... "Arrasaten ez da ilararik eta... sortzen, normalean izaten dudan beste jende izaten dut. Jendea zeren bila datorren? Ba, denetik dago: batzuk merkealdiak hasi baino lehen etortzen dira zer daukagun ikustera eta gero merkealdietan berriro etortzen dira erostera; beste batzuk beti merkealdietan egiten dituzte erosketak eta beste asko merkealdiak daudela eta kapritxoren bat erosteko asmoz". Merkealdietan bi epe

bereiztu ditu, "lehen epean %20 edo %30eko beherapena jartzen diegu arropen eta bigarren epean handiagoa existentziak guztiz agortzearen".

Mariluk ere antzeko zerbait esan digu "Beherapena saltzeke gelditzen zaizkigun taila solteei jartzen diegu bestela almazenean pilaturik geratuko litzaizkiguke. Guretzat irtenbide bat da eta jendearentzat abantaila bat". Mariluk bitxikeria bat ere kontatu digu "Merkealdietan gizonak eurak etortzen dira arropa erostera, bestela urtean zehar emakumeek eramaten diete arropa etxera ikus dezaten".

Dirua, berdin-berdin gastatzen dugu.

Baina guk zergatik egiten ditugu erosketak merkealdietan, kontutan izanik Olentzero eta Erregeetan nahikotxo diru gastatzen dugula? Bakoitzak bere arrazoiak ditu, jakina, baina gehienek, merkealdietan behar-beharrezkoak ez diren arropak erosten dituztela aitortzen dute, askotan, azkenean espero zutena baino diru gehiago gastatuz.

Ebak honako hau zioen "Ni merkealdietara sarri joaten naiz, ez pentsatuta dudana zer-

baizik; merkealdietan zerbait eroziz gero behar duzulako izango da, baina baita, kapritxoagatik, beharbada merkealdia egon ezean erosi duzun hori gabe pasatuko zenuke negua, guretzat abantaila direla uste dut". Juan Luisek, aldiz, "Arropak behar ditudanean erosten ditut, inoiz ez merkealdietan. Merkealdia dendariei kome-

merkealdi sasoia dendaren bat zapaldu gabe pasatzen uzten dutenak.

Merkealdia eta saldoak

Garbi bereiztu behar ginituzke biak zerbait erostean, zer erosten ari garen jakiteko.

Hondatutako arropak, beherapenarekin saltzen direnean, denda horretan saldoak daudela esango dugu eta den-



Inoiz baino tentagarriago daude eskaparateak

ni zaizkie, guretzat amu bat baino ez dira. Nire eritziz, hemen, merkealdia txarrak dira, dendariak ez dute legea betetzen, eta guk askotan amu hori irentsi eta behar ez dugun zerbait edo erabiliko ez dugun zerbait erosten dugu, azkenean dirua galduz".

Eritzia aldekoa edo kontrakoa izan oso gutxi dira

dariak erosi dugunak zein akats duen argitu beharra dauka.

Aldiz, lehen esan dugun bezala beherapenetan beti sasoiko arropak saltzen dira.

Dena den gaztelaniaz esaten den bezala "El que hace la ley, hace la trampa" eta orokorrean dendariak fin jokatzeko duten arren, kontuz ibil gaitetzen bada ez bada.



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!


Tfnoa: 79 16 04



Udalako erregie

“Azelakotxe auspokeixie!” esango auen norbaixettek titulue leiruaz bat. Bañe...ez ba! Ezta ba auspokeixie egi berdad-erue baño, historixako papel zaharretatik jasotako egi argi ta garbixe.

Mundrauko aiuntamentuko artxibuen dauen 1807ko manuskrito batetan dator, andra alargun baten ezkontza agirixen. Itxurie danez andra alargunorrek herriko hainbati dirue itxitte ei auken eta agirixorretan han-hemenka sakabanatute auken diruon inbentarixue agerketan dau: nori itxitte auken eta zenbat. Bertan “Guisaarra”, “Isidro



Aundi”, “Mateote”, “Concon”, “Bernarda Ponporron”,...eta antzeko beste izen askon artien “El Rey de Udala” izeneko bat agerketan da. Izena auen lekuen izana be egongo zan, ezta?

Bañe, hori gutxi balitz, badau beste detalle bat be, orduen sasoi- en Udalan erregie egon zala erakusten dauena. Ordurarte “Barrutia” izenaz ezagutu izen zan baserri bat (gaur taberna dana) 1861eko zensuen

“Erregena” izenaz agerketan da eta ordutik aurrera hala deittu izen jako beti. Hara hor ba erregie palazio ta guzti. Edozein moduten, honek pregunta ugari ekarten dutzo bati burure: Udelako erregie Napoleoneaz ala Fernando VII.az alkartu ete zan independentziako gerran? Ez ete auen ondorengoik itxi? Zein? Era-kutsiko ete jate hemendik aurrera Udelako umiei euren erregen bizitza eta burruken barri Carlos V.a eta Felipe II.anakin batera? Preguntak, preguntak, pregun-tak...Gauza bat behintzet argi dau: Udelarrak ez dauzela “dere-txo historiko” faltan.

Estepan Plazaola

Zelebrequeriak

“Eskobia” deitzen zotzen trena Eibarrera aillegau baiño len argindar barik geldittu zan Azitain ingur-ruan. Trenetik jetxi eta jente guztia oiñez abixau zan herrirutz, baiña mozkor bat zetorren, harri kozkor-raren pare, lo seko. Joan jakon interbentoria eta bizkarretik astindduz, esan zotzan:

—Oiñezkero zuk be hobe dozu jaikitzia, korrien-terik eztago eta.

—Rzzz! Hori be badogu? Etarazu orduan litro erdi bat markakua.



Itsua batek pasadizuan zoin emakumebati:

—Limosnatxo bat Jangoikuen izenian.


—Baiña gizona, atzo patxadaz jarritta, periodi- kua irakurtzen ikusi zinttudan eta.

—Eta zer? Nere zortzi orduak egin ondoren

Bakoitzak bere gustua egitten laga bihar jako. Hau da benetako gizalegia eta libertadia. Izan be oso gusto diferentiak izaten dittugu. Txoonpio-ki garbi asko erakutsi zoskun hau. Biatza bere ipurzuloan sartu eta gero txupau eitte ei zeban.

—Baiña Txoonpio, ze zikinkerixia dok hori ?

—Bakoitzak bere gustua mutil, bakoitzak bere gustua.



“Nik jaukat suerte malapartaua, nik. Hamabi urte monagillo eta sakristau izatera be enintzuan aillegau, hiru urte soldau eta beste hiru gerran eta kabo izetera ez. Pentsaik, ni jaio nintzianian ama be ez ei jeuan etxien eta”

Juan Martin Elexpuru




HILBEHERA
KAFETEGIA
Uribarri etorbidea



JESUS ELKORO
ELEKTROTEKNIKA
TB - HIFI - BIDEO
Tfnoa: 791886 ARRASATE

Deba Garaiko Lanbide Hastapenaren Programaketa 1989



TAILERRAK

- ESKORIATZAN Pintura.
- ARRASATEN Eskaiola eta isola menduak.
- BERGARAN Egurraren berriztapena Igeltseritza.

NORENTZAT

16tik 18ra bitarteko neska- mutilentzat

PROGRAMAKETA

1. Profesioaren arlo tekniko-praktikakoa.
2. Arlo sozio-laborala
3. Kultur eta kirol arloa.

IRAUPENA

Urte bete (Urtarriletik Abendura)

KOPURUA

20 ikasle tailer bakoitzeko.

INSKRIPZIOAK

Udaletxeetan, enplegu dinamizazioarekin harremanetan jarriaz.

Edozein ikastarotan parte hartzeko izen ematea librea da, bizitokia kontutan hartu gabe eta dohainik.

EPEA


Urtarrillaren 15era arte.

INFORMAZIO GEHIAGO


Bergarako Udaletxean: 763942
765509

ANTOLATZAILEAK

Deba Garaiko Udalak (Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Antzuola, Elgeta) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.



EUSKARAZKO EGUTEGIAK



Aurten eta lehenengo aldiz, Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak 1989ko egutegiak -handiak zein txikiak- argitaratu ditu.

Egutegi handiak horman ipini ohi diren horietakoak dira, Eukal Herriko argazki ederrez eta hainbat bertso apainduak. Txikiak, berriz, esku-egutegiak deritzoten horietakoak dira eta hainbat telefono praktiko eta erabilgarri jasotzen dituzte.

Egutegi hauek Udaletxeko Euskara Zerbitzuan jaso daitezke.

ZATOZ ZURE EGUTEGIEN BILA !!

EUSKARA BATZORDEA

“Egileei, agertzen duten gizalegea ikusirik, eta tristea bada ere, kontutan ez hartzea dela egokiena jakin erazi nahi diegu”

(Aretxabaletako Udala, herrian agertutako pintadak direla eta).

“Gestio-planak, “ni neu eta neure familia” deritzon enpresa batentzat egiten ditut orain. Neure buruaren gerente bihurtu naiz”.

(Jesus Palacios, Kooperatibetako jubilatua, TU-Lankide aldizkarian).

“Jugilazioak borondatezkoa baharko luke izan, gizon bat ongi egon eta bere ahalmenak bete-betean baldin baditu. Horrelakoei, jarraitzeko aukera emango nieke nik”.

(Antonio Murua, ULGORren lan egindako jubilatua, TU-Lankide aldizkarian).

“Arraultze bila eta erosketak egitera bidaltzen nau emazteak, eta oso pozik egiten dut nik; sukaldaritzan ikasi dut, eta orain gertatzen zait ez dudala astirik, erretiratutakoan egin nahi nuen zerbaitetarako: irakurtzeko, alegia. Orain, lehen baino askoz estuagoa da famili harremana”.

(Rosario Zubizarreta, AMATen lan egindako jubilatua, TU-Lankide aldizkarian).

Zein egoeratan ikusten duzu euskararen etorkizuna?



Egun Euskara dagoen egoeratik abiatuz, esan daiteke bere etorkizuna kezkarria dela eta uste dut ezin garela lasai gelditu hau esan ondoren. Beraz, honi buelta emateko bideak jarri behar ditugu, dakienak mintzatuz eta ez dakienak ikasiz.

Gure hizkuntzaren egoera latza dela pentsatu arren, badirudi beti ikusten dugula gero eta etorkizun euskaldunagoa, baina nire zalantzak dauzkat, zeintzuek pentsarazten didaten ez ote dugun ahazten egungoa eta hori horrela ikusten dugun neurrian ez ote doazen euskararekiko gure gogoak apalduz eta gure buruak lasaituz.

Helduen berreuskalduntzeko bidean etenaldi bat somatzen dugu, bi hizkuntzen arteko tirabirak dira nagusi eta badirudi erdara gero eta toki handiagoa betetzen ari dela. Honekin batera, helduen beharrei bigarren hizkuntza honek, erdarak alegia, erantzuten die.

Hau dela eta, euskarak egun denon erantzuna behar duenez, tokian tokiko, bakoitzaren eta guztion konpromezu maila areagotzea eskatzen du, Administrazioan euskararen normalizaziorako benetako bideak jarritz.

Amaia Altuna. Erdu Euskaltegiko Arduraduna



KULTUR FISIKO ZENTROA

- Squash-a
- Karatea
- Gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Masaiak
- Solariuma

6,45 etatik 10etara

IREKITA

Kontzeziño, Tfnoa: 799731

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula: Arimazuri, 2

Tfno: 79 70 77

Erritmoak: 2 ordutakoak
batez ere

Prezioak: 9.000 pta.

OHARRA: Bekatze sistema
izango da

INFORMA ZAITEZ !!

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi - Etxebarrin

200 m² tatik aurrera
sarbide zabalekin

- * Plantartekoa eta zubi-garabia, aukeran.
- * Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia.
- * Zerbitzuak: saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

PROMOCIONES MARKULETE ,S.A

Informazioa eta salmenta:

Tfnoak: Gazteiz * 28 67 60

* 27 79 60

Arrasate * 79 97 95

Juan Osinaga, Pilota Saileko Zuzendariak: “Profesionaltasuna sartzen bada, guk lana utziko dugu”

Gure herrian eraikiko omen duten frontoia dela eta, batez ere, pilota pil-pilean dagoen gaia dugu. Gai honi eta pilotaren inguruan dagoen beste gorabeheri buruz berba egiteko Pilota Saileko zuzendari den Juan Osinagarekin egon gara Iturripen duen “kobazuloan”.

—A.P.: Arrasaten, tradizioz, pilotari onen seaska izan da. Honek jarraipenik izango du?

—J.O.: Gure lanaren helburua horixe da, hain zuzen ere. Kontutan hartu behar da lehen pilotaz gain, beste kirolek ia ez zela praktikatzen, orain ezberdina da. Gero, bestalde, gaur egun badirudi jendeak nahi duela umeak atzetik jolasten ohitutzea, indarrez, eta horrela berehala erre egiten dira. Egunotan mahai gainean dago pilota motei buruzko eztabaida: pilota goxua dela, trapuzko pilota dela..., haurrei aurrean jolastea gustatzen zaie, eta hortik ere uste dut badagoela biderik pilotan jolasten ikasteko.

—Pilota Sailak zer ekintzak burutzen ditu urtean zehar?

—Bi txapelketa lokal egiten ditugu: San Juan eta Santamasetan, 120 bat partaiderekin bakoitzean; honetaz aparte, “Herriartekoa” izeneko; Puxka-Muxka, hemen herriko hiru pilotarik hartzen dute parte: Errasti, Markos eta Kortak; Herrialdeko Absolutoa: Juantxoren partizipazioarekin; Federazioko txapelketa: azkenengo edizioan Arrasate, Gipuzkoako txapeldun suertatu zen; eta, azkenik, eskolako txapelketak. Pilotari denak, afizionatu mailara arte,

gure kluban federatuak daude, baina guk, batez ere, umeekin egiten dugu lan.

—Profesional gehiago sortzeko posibilitaterik ikusten duzue?

—Juantxo oso aurrelari fina dugu. Korta-Markos bikotea ere hor dago, Josu Errasti, Hektor Goikoetxea...ba daude pilotari onak, baina aurrean ateratzeko mediorik ez. Esaterako, hauek ez dute gimnasiarik egiten, ez bait daukate non egiterik, eta interesgarria litzateke gimnasia eta pilota egitea, biak elkar konplementatuz, leku apropos batean.

—Frontoi berriak zer baldintzak bete beharko lituzke?, Profesionala ala ez? Non kokatua?

—Oso galdera zaila. Udalak nahi duen edozertarako, gu prest gaude laguntzeko. Eskatzen duguna zera da: mini-frontoiak, umeek disfrutatzeko eta errelejoak lantzeko; arauzko frontoia; gimnasio bat, pilota eta gimnasia konbinatzeko; aldagelak eta dutxak; mantentze-neurriak: argitzapena, TBko kamaretarako kabina apropos bat... Informazio hau partidu guztiei pasatu diegu. Kokapenari dagokionez, ulertzen dugu batzuk Zalbibarren nahi ez izatea. Ortega arkitektoa berak ez zuen nahi Zaldibarren egitea, eta beste leku bat aurkituko lukeela esan zion aspaldin Udalari: El Ferial, hain zuzen ere. Guk nahi duguna frontoia da.

Profesionala?, pentsatu ere ez. Profesionaltasuna sartzen bada, guk utziko dugu lana. Partidu profesionalak egotea urtean birritan besterik ez dugu nahi: San



Juan eta Santo Tomas eguneran, gure txapelketak eta gure ekintzak subentzionatzeko, zeren eta Udalak bakarrik subentzionatzen digu aurrekontuaren %30a. Orain, Arrasate Kirolak ematen digu oso laguntza ona.

—AUKEAren sorkuntzarekin hobetuko da kirolen egoera Arrasaten?

—Herrian dauden kirol elkarte guztiak (28) batzen dituen erakunde bakarra egoteak arrakasta handia suposatzen du. Gainera, aurrekontuaren banaketan, lehenengoan behintzat, adostasuna egon da.


—Gaur egun, gero eta kirol mota gehiago daude. Ez da zaila suertatzen, umeak behin pilota jolasten hasi, beste kirol bati ez pasatzea, eskaintza zabal honekin?

—Nahiz eta beste kiroletan ere aritzea, nik nire semeari esaten diot bost minutu, gutxienez, pilotan aritzeko. Gero, ziur nago gehiago jokatu duela.

—Aipatu pilotaren kirolaren ezaugarri batzuk?

—Uste dut, daudenen artean, kirolik nobleenatarikoa dela. Ostiakadak eta irainak ez dira izaten.

Antoñako Pabiloiaren inaugurapena



Astehenean Antoñako Pabiloia publikora zabaldu zen. Pabiloiak bost squash kantxa ditu; gimnasio txiki bat, boxeokoe erabiliko dutena hemendik aurrera; eta saskibalo kantxa erreglamentarioa. Hemendik gutxira, hiru pin-pong mahai jartzeko asmoa ere badago.

Hilaren 17an inaugurapen ofiziala izango da, AUKEAren trofeoak bertan emango direlarik.

Pabiloiak 40 bat milioi kostatu du.

Squashari dagokionez, esan beharra dago iraupen gutxiko eta bizitasun handiko kirola denez, artikulazioek erritmo aldaketen ondorioz lesio latzak (artikulazioen lesioak zein alterazio kardio-baskularrak) sor daitezke.


Hau dela eta, neurri batzuk hartzea aholkatzen digute: gure gor-

putza esfortzura molda dadin, hila-bete edo bi hilabeetetan zehar, footing, bizikletaz edo igeri egitea; squashean aritu baino lehen, beroketa saio bat egitea; squasha egin ondoren, estiramendu saio bat egitea.

Honez gain, beharrezko ikusiko balitz, interesatuei azterketa medikua egingo litzaieke, honetaz Alberto Garai arduratuko delarik.

Pabiloi honen inaugurapenez gain, Kiroldegiko aldagela guztien berrikuntza, klimatizazioa eta instalazioen elektrizitate eta iturgintza berrikuntzei ekingo zaio. Guzti honekin AUKEAren proiektuaren lehen zatia amaitutzat eman daiteke-larik. Guztira, 50 bat milioitako aurrekontuarekin.

Gero, bigarren zatia etorriko litzateke: proiektu honen barruan, hiriguneko frontoia eta Iturripeko instalazioak lirarteke erronkarik garrantzitsuenak. Baina hori beste kontu bat da.



Arrasateko ERDU - AEK euskaltegian Matrikula zabalik.

Alfabetatze eta EGA ikastaroak

Otsailak 15 - Ekainak 22 (egunean 2 ordu)

Langabetuentzat Ikastaro bereziak. Maila guztiak

Otsailak 15 - Ekainak 2 (egunean 5 ordu)

ANIMA ZAITEZ eta eman lehenbailehen zure izena.

Erdiko Kale 28-1.ezk
Tfnoa: 79 71 12

Iñigo Roldan, Espainiako Ziklo-krosseko txapeliduna

Dorleta Eskolak denboraldi bikaina izan du



Iñigo Roldan, Llaneseko proban

Hilaren 6an Llanesen Iñigo Roldanek, Arrasaten jaioa eta Aretxabaletan bizi den gazteak, 16 urte betetzen zituen egun berean, hain zuzen ere, Espainiako ziklo-krosseko txapelidun suertatu zen, kadeteen kategorian.

Garaipen honek denboraldi bikain baten errematea suposatzen du: karreteran, lau lasterketatan garaile; Gipuzkoako ekipoen txapelketa; eta Espainiako ekiporako selekzionatua. Ziklo-krossean, berriz, batean izan ezik, parte hartu duen lasterketa guztietan garaile suertatu da, guztira bederatzi probatan.

Eskatu diogu Iñigori Llaneseko proba nolakoa izan zen kontatzeko: "fuerte hasi nintzen lehenengoko bueltatik, eta besteak pixkat errelajatu ziren momentu batean tiroia emateko aprobeixatu nuen. Diferentzia nahikoa-ekin sartu nintzen helmugan".

Iñigo orain sei urte hasi zen bizikletarekin, eta iaz ziklo-krossean. Egunero entrenatzen du, egun batetik bestera beti

aktibitate ezberdinari ekiten diola: gimnasia, footing, bizikleta, etab.

Yurrebasok Espainiako txapelketa, profesional mailan, irabazteagatik, 30.000 pta besterik ez ditu eskuratu. Hau dela eta, ea ziklo-krossean aritzeak merezi duen galdetu diogu, eta barre egiten du Iñigok: "niri 6.000 eman zizkidaten. Ziklo-krossak ez du bizitzeko ematen, pentsatu ere ez".

Ziklo-krossa, martxoan hasten den karreterako denboraldirako negozi-preparazio bezala kontsideratzen da, nahiz eta batzuk disziplina honetara bakarrik dedikatu. Inigoren asmoa, etorkizunari begira, hau da: "nik, hasieran ziklo-krossa preparazio bezala hartu nuen, baina gero konturatu nintzen ondo nabilela disziplina honetan. Afizionatu mailara heldu arte ziklo-krossean jarraituko dut eta gero, segun nola nabilen karreteran, ikusiko dut. Arrean, bietara "a tope" dedikatuko naiz".

Dorleta, Gipuzkoako lehen Ziklismo -Eskola

Baina, garaipen hau Iñigoren lanari esker soilik ez da etorri. Dorleta Eskola osoaren garaipentzat kontsidera daiteke. Dorleta 1975. urtean sortu zen "Makatzena" izenarekin. Leintz Bailarako eskola dugu eta 81 txirrindulari ditu, afizionatu, gazte, kadete eta haur-mailetan. Lau laguntzaile ditu: Fagor, Arrasate Kirolak, Alejandro Altuna eta Ley. Bailarako lau Udalek (Gatzaga, Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzak) ere subentzionatzen dute. Eta, eskolaren eragile bezala, "Almen", "UDA", "Club Deportivo Eskoriatza" eta "Deba Garaiko Zikloturistak" ditugu.

Bere lehendakaria, Javier Garcia; lehendakariordea, Julio Isazelaia, eta idazkaria, L.M. Berezibar ditugu. Azken honen esanetan, "garaipen kopuruaren

arabera, esan daiteke Dorleta Gipuzkoako lehen ziklismo-eskola dela"

Ziklo-kross mailan, aurtengo Espainiako txapelketa izan da garaipenik handiena: Iñigoren garaipenaz gain, Josu Ibaeren 6. eta Eneko Garairen 7. postuak adierazgarriak dira.



Josu Ibañe, Iñigo Roldan eta Eneko Gara

Karreteran, Lazpiur eta Mendieta Espainiako txapelketan, Gipuzkoako selekzioarekin bigarren gelditu ziren. Lazpiurrek, afizionatu mailan, Fagorekin Euskadiko Txapelketa lortu zuen, eta Mundialera ere joan zen.

Dorletak jadanik eman du bere lehen profesionala: Enrike Alonso. Eta gehiago emango dutelakoan daude. Aurtin hiru txirrindulari lehen afizionatu mailara (eskolak bigarren afizionatu mailaraino bakarrik hartzen du) pasatu dira: Estevez, Igartua eta Soto.

Sabino Padillaren lana, funtsezkoa

IVEFeko irakaslea den Sabino Padilla medikuaren lana funtsezkoa da eskolarako. Bai ziklisten janaria, bai entrenamendu mota, bai beste gai batzutan, Sabinok ematen die aholku. Laguntza paregabe hau dela eta, eskolakoek Sabinori eskaini nahi diote garaipen hau.


Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 797300-8396
Telefax: 793412

Udaletxea, ardoz-ardo jasotako eraikuntza



1756-66 bitartean altxatu zen gure udaletxea, barroko estiloan sailkatu dezakeguna batere dudarik gabe.

Lanak hamar urtez luzatu ondoren, herriaren diru-kutzak erabat agortuta geratu ziren. Honen aurrean, Fernando VI.a erregeak herri honi 20 urtetako epean ardo "azumbre"aren (2,015 litrotako neurria) salneurria 4 maravedi-tan igotzeko baimena luzatu zion, era honetan sekulako gastu hura nolabait berdinduz. Letonak idatzita utzi zigun bezalaxe, Arrasateko ar-

dozale guztien kolaborazio bitxia izan zen.

Anekdotak alde batetara utzi eta azter dezagun zertxobait gure-gurea den udaletxe hau.

XVIII. mendean gauzatu zen, eraikuntza zibilen areagotze bikainagatik ezaguna den garaian. Egia da XVII. mendea baino lehen udalbatzar edo "pleno"ak eliz-arkupetan egiten zirela Euskal Herrian. XVIII. mendean, udal-lanak konplejizatu zirenean, xede hauek beteko zituen toki berezi bat jasotzeko premia nabaritu zen.

Hau zela eta, Euskal Herrian udaletxeak ernaltzen hasten dira, guztiak barrokoak, garai hartan nagusitzen zen estilo. Hala izanik ere, eraikuntza hauetan batasun bat ikusi nahi izan da, estilo berezi bat, baina hau soilik banaka batzutara hedatu genezake, hala nola, Elgoibar, Oñati, Bergara, Legazpi, Ataun eta Arrasatekoetara. Haatik, estilo bat baino gehiago, esku bere-tik sortuak izatea litzateke bateratze honen funtsa, hau da, Ibero eta

Carrera arkitektoaren eskutik datozkigu. Bere eraikuntzen antolaketa berdintsu izaten da: behe maila bat, portikoduna aurrekaldean eta plaza batetara zabaldua, bulego eta leku nobletarako bigarren maila bat, eta azkenik hirugarren bat, batzutan leiho bidez ezagutzera ematen dena.

Aurrekaldean balkoien garrantzia azpimarratu behar, gure kasuan Rafael Arrazolak egin zituenak, eta nola ez, harmarri erraldoiak. Arrasaten dugun harmarri zoragarria arkitektoaren seme zen Manuel Martin Carrerak burutu zuen.

Baina Euskal Herriko udaletxeen osagairik bikainenak arkupeak dira, aterpe lana betetzeaz gain merkataritza toki bilakatu zirenak.

Julio Galarta pintore arrasatearrak, hilabete honetan zehar erakusketa egiten dihardu Onatiko Etxe Haundi jatetxean.

BRANKA JATETXEA

Eguneko Menua
eta karta

Zarugalde 1 tfoa 796010


TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

O APAINKETAK
P
A
R
I
A
K
ERAKUSKETAK

Zubizarreta
GALERIA 44



Arrasateko kooperatiba Industrialak zera behar du
PRODUKZIO - ZUZENDARIA

Kooperatibako zuzendaritza-talderaen barrutik, eta Gerentziaren menpe, produkzio- arloa zuzentzeko eta ahal den gehien hobetzeko ardura izango du, bere esku dituen baluabideekin, ezarritako helburua lortu ahal izateko.

BEHARREZKOA DA:

- * Goi edo erdi-mailako titulazioa
- * Esperientzia, Produkzio-Fabrikazio arloan
- * Inglesa edota frantsesa jakitea.

ESKAINTZEN ZAIO:

- * Bazkide bihurtzea
- * Emaizetan partehartzea
- * Izangaiaren balio eta esperientziaren araberako lansaria.

Interesatuak bidali Curriculum Vitae:
81 postakutza, 20.500-ARRASATE.Pertsonal
Departamentura zuzendua.

Hertzainak, belaunaldi berriaren muturra.

Txibiston izan berria dugu Hertzainak taldea, euskal musikaren garrantzi handia izan duen taldea, nire ustez. Zergatik? Hona hemen nire arrazoiak.

Han geuden gu, gure betiko euskal kantariekin, mitin-kantaldien sasoia igaro berria, eta gauzak nondik nora joango ziren asmatu nahian. Musika landuagoa behar zela, profesionalagoa, tresna gehiagoz apaindu...Edo?

Eta, bapatean, burrunbada. Gitarra fuerteak, ritmo biziak, musika zuzena eta testu bortitzak. Hertzainak agertu ziren. Ez zen hura, beharbada, espero genuena, baina bitxia zen, berria. Eta erakargarria. Izan ere, Hertzainak-en lehen diska hartako himno bilakatu ziren, zetorren belaunaldi berriaren himnoak. Pinuz potrotaraino zeuden eta Gernikako arbolaren lekuan palmera lirain bat nahi zuten, Euskadi izan zedin libre eta tropikala. Hots, apokalipsia orain.

"Hertzainak" izan zen muturra. Beraien ondotik etorri zen gerora "rock radical vasco" izenpean ezagutu den fenomeno, belaunaldi berriaren grinak

eta egonezinak aideratuz. Eta orain, fenomeno hori bere onera itzultzen ari denean, zerbait esatekorik duten taldeek aurrera egin nahi dute. Belaunaldi berriak, ukalondora, bere lekua lortu du gizarteai eta gaurko mezua egoera berriari egokitu behar zaio.

Hertzainak taldearen azken diskan, "Salda badago" izenekoan, somatzen da antzeko zerbait. Kantak ez dira himnoak, testuak ez dira esloganak, jarrera ez da probokazioa. Ideiak ez dira aldatu, baina moldeak bai. Musika-gintza landuago baten bila agertzen da taldea. Agian, hasierako freskotasuna galdu eta ez du oraindik erabateko heldutasunik lortu, baina bide berrien bila ari da eta ahalegin horiek itxaropena pizten dute. Saiatze horietatik etor bait daiteke, orain arte nahiko antagoniko izan diren belaunaldi zahar eta berriaren arteko sintesi aberasgarria.



SOROZABAL GOGORATUZ

Pablo Sorozabal maisua hil ondorengo aipamen eta gorazarre guztiak eginak dira dagoeneko. Nire aldetik, esan dezadan nire ume denborako oroimenean artean, "La taberna del puerto" zartzelaren oihartzunak gordetzen ditudala maitasunez. Eta esan dezadan, baita ere, bere "Gernika" lehen aldiz entzun nuenean, txistua ere musika sinfonikorako gai izan zitekeela ohartu nintzenean, nire euskal senaz harroago sentitu nintzela.

Bizirik zegoen bitartean ahaztu xamar genuelako edo, Sorozabal maisua hil den honetan aitopenok zor nizkiola sentitu dut.

Mikel Irizar

ENTZUN GAITUZUE?
BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09



OSTARKU DANTZALEKUA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

PORRUSALDA

Gabonetako betekadak arintzeko edo, dakarkizuegu Bixi Bengoak emandako errezetaz egindako porrusalda goxo hau.

Osagaiak: 4 bat porru eder
patata bat
olioa, gatza eta berazkatz atal bat.

Porruak luzetara moztu eta zatitu eta gero xehe-xehe egin. Patata ere zatitu.

Ura irakiten dagoenean porruak, patata pusketak eta goilarekada txiki bat olio gordin bota. Berakatzak ukabilaz jo* eta oliotan erre, kanela kolorea hartzen duen arte. Porru eta patatetara bota eta hiru ordu laurdenetan egosten eduki su gelditan. Aldika lapikoari ikara egin.

*Berakatzak jo beharrean zatituz gero, ez da gero lapikoan desegiten, oso-osorik ateratzen da.

Bixi Bengoa

ZIZKA MIZKAK

Urtarrileko aldatza

Porrusalda ugari jan behar Urtarrilean zehar, alde batetik, Gabonetan hartutako kiloak kenduko badi-tugu, eta bestetik, ez dagoelako ezerhau baino merkeago.



ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa:76 22 68

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

GURE AMETSA JATETXEA

- * bodak
- * banketeak
- * negoziotako otorduak

GATZAGAN, z/g

TFNOA 792097

Loditasuna

Arteriosklerosis deritzon gaitzaren arrisku-faktorea izateaz gain, beste ezaugarri batzuk ere baditu bere baitan; arriskugarria suertatzen da agertzen denean, bere eboluzioan, edo berarekin doazen beste konplikazio batzuetan (dislipemia, hipertentsioa, litiasis biliarra, artrosisa, emakumeen hilerokoaren aldaketak...); eta gainera, badu bizitzaren iraupenarekin zerikusia, bizitza hori moztu egiten bait du.

Haur lodi gehienak (% 75 kalkulatzeko da) nagusi izatean ere lodi izango dira nabarmenki.

Pertsona nagusiak bere "panikulo adiposo"an dituen zelula koipetsuen (adipozitoen) kopururako, loditasuna noiz, zein adine-

tan hasi zen jakiteak zerikusi handia du, horren arabera gehiago edo gutxiago izango bait dira.

Loditasun hori haurtzaroan hasi bada, adin horretan zelula koipetsuak erraz ugartzen dira, eta hor gorputzean jarraituko dute bizitza guztirako.

Guzti honek zera adierazten digu: haurtzaroan sortutako loditasuna eta pertsona helduarengan sortutakoa ez direla berdinak, noski; eta txikitan agertutakoa tratatzea, zailagoa gertatzen dela.

Pertsona nagusia izango da, ordea, konplikazioak jasan beharko dituen eta horiek baztertu nahi izanez gero, haurtzaroko loditasuna zaindu eta prebentzio-lana egitea derrigorrezkoa da.

Guzti hau lortzeko, haurrak

txikitatik elikadura orekatu eta bere adinerako egokia hartu beharko du, baita ariketa fisikoa egiten ohitu ere txikitatik.

Neurriak garaiz hartzea hobe izaten da, haurrarentzat gogorrak izaten bait dira beti dieta hipokalorikoak; eta gainera, denbora luzez eramanez gero, kaltegarria gerta daiteke beraren hazkunderako.



*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

IKASTAROA

A E D n

ESKULANAK EGURREAN
(Tarazea)

Irakaslea: BEATRIZ ARREGI
Eskoriatzako Irakasle Eskolakoa

Teknika horrekin egindako kutxatila, koadro etabar aurkeztuko ditu lehenengo egunean.

Gauza samurra zeure etxerako apaingarri bat egin nahi baduzu.

ZATOZ!!

Hasi: 1989 Urtarrilak 11.
Bukatu: 1989 Martxoak 15.
Ordua: Arratsaldeko 3'30 etan.
Eguna: Asteazkenetan

HITZALDIA

A E D n

ESKOLA ERRENDIMENDUA:
MOTIBAZIO
ETA IKASTEKO OHITURAK

Emalea: KARMELE ITURBE, San Frantzisko
Xabier Ikastolako Psikologoa

- Ikasleei eguneroko lanean nola lagundu.
- Lanen antolaketa.

Eguna: 1989ko Urtarrilak 19 (Osteguna)
Ordua: arratsaldeko 3'30 etan



ETXEBIZITZAK

- Pisia hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauz)
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauz).
- Emakume edo neska...(kopiatu eskuz dagoena).
- Merkataritzarako lokal hartuko nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m2. Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m2. Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokal eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisia salgai Uribe Auzoan. 4 logela, egongela, 2 bainugela, garajea eta trastetegia. Tfnoa. 793612.
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2º). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da.

37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350

- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko prestatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisia salgai, altzariekin, Makatzenan (5—4º A) Tfnoa. 799357

— Garage bat errentan eman nahi da. Uribarrin, kotxe bientzako lekua du. Urtarrilak 20 aurretik.

LANA

- Igeltzeroak behar dira: autonomo kontratatuak. Soldata elkarrekin erabakitzeko. Interesatuek deitu 717461 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Tfnoa.793544

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 sr salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa:(945)445393 Ana
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 70900 tfnora (Jose Felix)

IKASTAROAK

- C LENGOAIA Arrasateko IMI zentroan, Otsailaren 6tik 17ra, arratsaldeko 4etatik 8etara; programa: C Lengoiaren deskribapena, motak, ordenadoreak, adierazpenak, fluxuaren kontrol-zententziak, C Funtzioak eta egiturak, sarre-rak eta irteerak.
- Informatika: sarrera. Arrasateko IMI zentroan, Urtarrilaren 30etik Otsailaren 3ra, arratsaldeko 4etatik 8etara. Programa: informatika sarrera, testu prozesadorea, orri elektronikoa eta datu basea.
- Adimen artifiziala eta sistema espertoak. Programaren laburpena: Adimen artifiziala, sarrera, teknikak eta lengoaiak.
- Sistema espertoak: diseinoa, praktikoak, diagnostikorako sistema espertoak zelula malguetan. Informazioa eta izen ematea Arrasateko Ikerlan Kooperatiban. Tfnoa: 794811
- Ikastaroa UNEDen. Bergarako UNEDeko historia departamentuak antolatuta, ikastaro bat izango da bertan "La ciudad y la tierra prometida" gaiari buruz, Urtarrilaren 28 Martxoaren erdialdera



ARRASATEN HILAK

Modesto Leibar Balanzategi

("Txanpon")

1989ko Urtarrilak 6an. 80 urte.

Lehen urteaurrena

Marcela Guridi Arregi

1988ko Urtarrilaren 11an hil zen

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: _____

Ama

Amak ukondoa maitekiro laztandu zionean, gauak azken arnasa luzatu zuela somatuz, ohe bazterrean eseri eta janzteko erritoari hasiera eman zion. Ametsgaizto bat izan ondoren, amaren irriñoa munduko estimulorik gozoena suertatzen zen sarritan eta haren besoa bortizki eutsiaz adierazten zizkion bere eskerrik beroenak. Lepotik zintzilikatuz, hogeit urtetako gazte baten pisu astuna bere gain jaurtitzeko ohitura hartua zuen eta iadanik amaren bizkar hezurak gogortasun froga franko gaindituak zituen. Nork esan hiruzpalau urtetako hauraren burmuin inozoak gobernatzen zuela mutil puska haren harrera; ezinbesteko irritsa maitegarriak amaren gurutzeaz aski hitzegiten zuen.

—Aupa mutikote, jaikitze ordua duk.

Eta burutxoa maindire azpitik azalduz, ziri-mola bailitzan amaren lepoa estalkien barna irensten zuen. Tximista baino ere azkarrago eta arinago.

—Eta nola egin du lolo ene gizontxoak?

Mutilaren sinpleziaz ohartu gabe aritzen zen egunero bere barnean zeraman haurra iratzarri

nahian. Haren garunetan loretzen zihoan uler-pide argia aurkitzeko ahaleginean.

—Baina zer da hau, pixontzi halakoa? zeinek egin du barrabaskeria hau?

—Mikelek—erantzuten zuen begirada galdua sabaian finkatzen zuen bitartean.

—Mikelek bota du—eta ohe bazterrean okertzen zen, algara eta pozaren erdian. Amaren begietan behatzak hiltzatuz, galtzerdiak janzen zizkion bitartean mutilaren pisu hila adoretu jasanez. Bere barnean sentitzen zuen zoriona ama maitearen goibeltasuna patxaratzeko hedatu nahian.

—Amatxo polita! —oihukatzen, amarenganako sentimendu garbia adierazi asmoz garraisi egiten. Eta haren irrifarre gozoa ikustean, poza. Amodio infinitoa; haurra denaren purutasun absolutoa.

Eta goizeko kontua izan arren, eskolara joateko eskilarak jeisten zituen bakoitzean, samurtasunez blai egindako aurpegiaren despeditzen zuen semea. Bere burua baino ere maiteago zuen semea.

Jaione Garmendia

Denborapasen soluzioak:

—Euskal-Herria ezagutuz: Arno, Izaspi, Kalamua, Balerdi, Adarra, Txindoki.

—Bertako hitz ahaztuak: Agura.

—Bokale desagertuak: “Alkateak bere bulegoko lehioa ireki zuenean, ezin zuen sinetsi begien bistan zuena: Alderdi Eder neurri, mota eta modu guztietako elefantez beterik zegoen. Gorriz jantzitako elefante dotore bat soka saltoan, egunkaria irakurtzen ari zen elefante korbata duna, hiruzpalau elefante elkarren artean hizketan, elefante asko hondartzan etzanda, zenbait eguzkia hartzen, beste zenbait paletan, saltaka, itsasora begira, txikleaz globoak egiten, pipak erosten, pipak saltzen, usoei ogi apurrak botatzen...”
Andu Lertxundi, “Donostian elefanteak ikusi zirenekoa”.

BAZAR
TOKI ON

Elektronika artikuluen
salmenta

Egundoko merkealdiak

J. Carlos Guerra, 1 - Tfnoa: 799164

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

SORGIÑA IRRATIA (105 FM).

TFNOA.: 79 82 68

Urtarrilak 13, Ostirala

- 7-9 KK Profe puag;
9-10 Piramyd
10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua;
11,30-12,30 Beltza blues klub

Urtarrilak 14, Larunbata

- 8-9: Onda katxondoa;
9-11 Dana ondo dabil
11-1 Banpiroak.

Urtarrilak 15, Igandea

- 15: 10-11 PUUAGG!!! (Musika eta kontrainformazioa).

Urtarrilak 17, Asteartea

- 7-8: A ze hiru hanko aulki batentzat;
8-10 Pufa kalufa;
10-11 Bai zera!;
11-12 Irintzi

Urtarrilak 18, Asteazkena

- 7-8 Metal Hammer;
8-9 Taberna Galaktikoa;
10-11 Sorgi rock;
11-12 Basoaren beste aldean.

Urtarrilak 19, Osteguna

- 1-2 Gaurko bazkaria;
7-8 Exterminioa helburu;
8-9 Mara-mara (Emakumeen Asanblada);
9-10 Itxungitako dragoie (AED);
10-11 Amen Jesus!;
11-12: Gau erdiko klasikoak

OSTADAR IRRATIA (102 FM)

Urtarrilak 13, Ostirala

- 3,30 eta 8,30 8ERROTA-ZAHAR (Ipuinak)
4 eta 8,30 BATUTAKIN (Musika klasikoa).

Urtarrilak 18, Asteazkena

- 4 eta 8 XIRU-LIRU-LI (Haur Kantak).

Urtarrilak 19, Osteguna

- 1 eta 8 IRRATIA-GELAN (Gelakogra-baketak).

ETB 1. ARRASATE PRESSEK Gomendatzen ditu

Urtarrilak 13, Ostirala

- 19,05 ONGITIRABILBIRA;
19,35 DABID BALFOUREN ABENTURAK;
22,40 FAHRENHEIT;

Urtarrilak 14, Larunbata

- 12,30 ATRILA;
15,10 SASKI BALOIA, EUROPAKO KOPA:
Bartzelona-Limoges, diferitua;
17,05 KATU KALE;
22,05 GAUEKO PELIKULA: "The Godfather".(1972)

Zuzendaria : Francis FORD COPPOLA

Antzezleak: Marlon BRANDO

AI PACINO

James CAAN

Bi belaunaldi gainditu ondoren, New York-eko mafia buruak, edadeak hala agindurik, azkenhatsa bota du. Semeak, gogoz kontra bada ere, agintea bereganatuko du eta, ez luze, moralitate eza eta hilketaren artea menperatuko du.

Urtarrilak 15, Igandea

- 11,55 ELGOIBARREKO KROSSA;
14,15 ABESBATZAK;
15,25 BAZKAL OSTEKO ZINEA: "Errege Salomonen mehatzak" (1950)

Zuzendaria: Compton BENNETT

Andrew MARTON

Antzezleak: Stewart GRANGER

Debora KERR

Richard CARLSON

Klasiko honen berrezarketa honetan, Afrikara joandako esploratzaileek, herberteraturiko kazike bat konbenzitzen ahaleginduko dira, honek diamantezko mehatzetaraino gida ditzan.

- 18,25 SASKI BALOIA;
20,55 ST. ELSEWHERE OSPITALEA.

Urtarrilak 18, Asteazkena

- 21.00 ZINE PANTAILA: "YOUNGBLOOD HAWKE" (1964)

Zuzendaria: Delmer DAVES

Antzezleak: James FRANCISCUS

Suzanne PLESHETTE

Mary ASTOR

Pelikula-melodrama honetan, idazle batek , bat batean ospea bereganatu eta horrekin batera amodio ugari suertatu ere.

A P E Z U A F A S M E N
 I D G O R B E A N P U S
 U F A I M O A U A T I O
 S O K R A P E M N B E O
 B N A T R E A A A K I R
 E A F U E A N L R A I M
 L F P E S A E A N M E L
 A O M A U R A K O A P E
 T E M O D I P E R U X I
 E F U I Z A S P I I F O
 T Z U A N U N F A M A N
 I K O D N I X T A L I A

Euskal Herria ezagutuz: bila itzazu hizki- zopa honetan Gipuzkoako sei mendiren izenak.

Bertako Hitz Ahaztuak: osa ezazu hitza eta jakingo duzu nola deitzen zaien (edo zitzaien, behintzat, garai batetan) Oñatin karta-jokuko irudiei (hau da, erregi, zaldi eta sotari). Falta zaizkizun hizkiak hor nonbait aurkitzen dira ondoko hitz zerrendan.

AGERKETA... 2
 AZTERKETA...1
 TXAKETA... 0
 ZAKURRA... 2 A A

Bokale desagertuak: jar itzazu testuean falta diren bokalak eta Anjel Lertxundiren ipuin baten ahapaldi bat agertuko zaizu.

_ L K _ T _ K / B _ R / B _ L _ G _ K / L _ H _ C / R _ K / Z _ N _ N / Z _ N / Z _
 _ N / S _ N _ T S / B _ G _ N / B _ S T _ N / Z _ N : L _ D _ R D / D _ R / N _ R R _
 M _ T / T / D / G _ Z T _ T _ K / L _ F _ N T _ Z / B _ T _ R _ K / Z _ G _ N . G _ R R
 _ Z / J _ N T Z _ T _ K O / L _ F N T / D _ T _ R / B _ T / S _ K / S _ L T _ _ N _ G _ N K _
 R _ _ R _ K _ R T Z _ N / _ R _ / Z _ N / _ L _ F N T / K _ R B _ T _ D _ N , H _ R _ Z P _ L _
 / _ L _ F N T / _ L K _ R R _ N / _ R T _ _ N / H _ Z K _ T _ N , _ L _ F _ N T / _ S K / H _ N
 D _ R T Z _ N / _ T Z _ N D _ , Z _ N B _ _ T _ G _ Z K _ / H _ R T Z _ N / B _ S T / Z _ N B _
 T / P _ L _ T _ N , S _ L T _ K _ , T S _ S _ R / B _ G _ R , T X _ K L _ _ Z / G L _ B _ K _ G
 _ T _ N , P _ P _ K / R _ S T _ N , P _ P _ K / S _ L T Z _ N , _ S _ _ _ G _ / _ P _ R R _ K / B _ T
 _ T Z _ N ...



ARIES
 (Martxoaren 21etik
 Apirilaren 20ra)

Nahiz eta urteberria ez oso ondo hasi, ez nahigabetu. Ez gehiegi espero aste honengandik, hurrengorako lainoak desagertuko zaizkizu.



TAURUS
 (Apirilaren 21etik
 Maiatzaren 20ra)

Hain lanpetuta egotea ez da jarrera hori mantentzeko aitzaki. Urte berriak haize berriak ekarriko dizkizu.



GEMINI
 (Maiatzaren 21etik
 Ekainaren 21era)

Sorte onak inguratzen zaitu. Zabaliezazkiozu lehioak, bada ordua zure buruari aukera bat emateko.



CANCER
 (Ekainaren 22etik
 Uztailaren 22ra)

Hankasartze hori dela eta, ez barkamenik eskatu. Besteak ez luke ontzat hartuko.




LEO
 (Uztailaren 23tik
 Abuztuaren 23ra)

Behar duzuna, argi eta garbi eskatzen ez baduzu, besteek ez dute zer nahi duzun asmatuko. Beharrezkoa bada, oihu egin.



VIRGO
 (Abuztuaren 24etik
 Irailaren 23ra)

Erregeek nahi zenuena ez badizute ekarri ere, ez haserretu. Batzuetan, zer komeni zaizun, besteek zuk baino hobeto dakite.



LIBRA
 (Irailaren 24etik
 Urriaren 23ra)

Utzi haurrei zuregana hurbil daitezen. Helduen arazoak kendu burutik eta izan zaitez haurra.



SCORPIO
 (Urriaren 24etik
 Azaroaren 22ra)

Nagusia zure gain edukiko duzu, baina ez zaitez kezkatu. Zaunka egiten duen zakurrak, ez du aginka egiten eta.



SAGITARIUS
 (Azaroaren 23tik
 Abenduaren 21era)

Bota ezazu urrutira zure gezia. Saiatzen ez bazara, ez duzu lortuko. Eta ez zeure burua gehiago engainaru




CAPRICORN
 (Abenduaren 22tik
 Urtarrilaren 20ra)

Kalean zehar hainbeste ibiltzea ez zaizu komeni, baina beharrak, bete egin behar dira.



AQUARIUS
 (Urtarrilaren 21etik
 Otsailaren 19ra)

Non galdu duzu alaitasuna? Zoriontasuna txori bat bezalakoa da, ez badiozu jaten ematen, hegaz doakizu-



PISCIS
 (Otsailaren 20tik
 Martxoaren 20ra)

Barruan daramazun zaharra berritze-ko, une egokia duzu. Ez zaitez izan hain konbentzionala.

☞ Zenbat liburu eta aldizkari dagoen Arrasateko Udal Liburutegi publikoan?

Joaten al zara maiz bertara? Ea, ba, datu hauek ezagutu ondoren animatzen zaren.

Haurren liburutegian 2.749 liburu dago irakurtzeko. Horietatik 884 euskaraz eta 1865 gaztelaraz.

Helduen liburutegian, berriz, 6.196 liburu aurki ditzakegu guztira, zeinetatik 1.058 euskaraz dauden eta 5138 erdaraz.

Denetara, beraz, Arrasateko Udal Liburutegi Publikoan 8.945 liburu dago, hauetatik 1.942 euskaraz.

Egia da, Unescoren proposamenaren arabera Arrasateko Liburutegi Publikoan 52.500eko liburu egon beharko liratekela gutxienez, baina hala ere, ezin uka libururik ez dagoenik. Eta gainera 1.988 urtean sartu direnak -1.841- kontuan harturik urtez urte gehikuntza nabaria izango dela espero da.

Aldizkariak, gai desberdine-

takoak, 50 hartzen dira eta egunkaiak 7 (DEIA, EGIN, DI-ARRO, CORREO, EL PAIS, EGUNA, HEMEN).

☞ Zenbat erabiltzen dugun liburutegi publikoa?

Momentu honetan bazkide kopurua 1.909koa da.

Liburutegian bertan urtean zehar 21.919 irakurketa egin da, 14.699 heldu eta 7.290 haur bertan izan direlarik.

Etxean, mailegu bitartez, 8.929 irakurketa eman da. 3.739 helduak izan dira eta 5.190 haurrak.

☞ Zenbat jende bildu den kultur-ikuskizunetan?

Sarri asko jaialdi eta kultur-ikuskizunetara joateko mezua jasotzen dugu. Gero, joan ala ez joan bakoitzak erabakiko du, baina gehienetan ekintza horiek zentzuzkoak izan duten jakiteko gogoia izaten dugu. Gogo hori asetzeko hona hemen Arrasaten

azken aldian izan diren kultur ekintzetara joandakoen kopuruak:

—Antzerkiak:

Geroa: "Hertzaina al Pilpil" 226 pertsona.

Karraka: "Ocupado" 502 pertsona.

Tanttaka-Topo: "Agur Eire, Agur" 128 pertsona.

Bederen 1: "El Arreglo" 432 pertsona.

—Kantaldiak:

Txomin Artola 157 pertsona.

Ruper Ordorika 560 pertsona.

Oskorri 850 pertsona.

—Zinea:

Zine-Klub (bataz beste) 150 pertsona.

—Beste zenbait:

Lore Gazteak (Euskal dan tzak) 210 pertsona.

La Ochoa (bi emanaldi) 524 pertsona.

Eskusoinu jaialdia 122 pertsona.

Txirri, Mirri eta Txiribiton (bi emanaldi) 1767 pertsona



“ JANARIN ”

jaki prestatuak eta aurreprestatuak
aurkezten dizkizu **AUZO - LAGUNEK**.

Eguneroko jatorduetarako, hona aukera goxo-goxo eta etxekoa bezelakoxea.

Beraz, Urtarrilean, Otsailean... eta aurrerantzean JANARINen kontu jatorduak !!!

Arrasaten, (oraingoz) Uribe Auzoko EROSKI supermerkatuan aurkituko dituzu.